



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko irailaren 5ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko irailaren 5ean, arratseko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, IDIART Claudine, GOICOECHEA Iñaki.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : LEKUMBERRY Xantxo.

Deialdiaren eguna : 2023ko agorrilaren 31

Afitxatze eguna : 2023ko agorrilaren 31

5. ERABAKIA: BEHIN BEHINEKO ENPLEGU BATEN SORTZEA

(4.2.1 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio, denbora ez osoko animatzaile laguntzaile behin behineko enplegu baten sortzea eskola egunetako eguerdietan haurrak jantokian zaintzeko.

Enplegua 2023ko irailaren 5etik 2024ko uztailaren 5a arte sortuko litzateke.

Asteko lanaldia 7,28 orenekoa litzateke, urte oso batera eramana.

Enplegua C kategoriakoa da.

Enpleguen taula honela eguneratuko da:

Enplegu horren betetzeko, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-23 1° artikulua xedapenak beteko dira, zeinek baimentzen baitute kontratupekoak kontratatzea behin behineko jarduera emendatzeei aurre egiteko, 18 hilabeteko garai batean gehienez eta 12 hilabeteko denbora meta daitekeelarik.

Enpleguari 387ko indize gordina aplikatu daki.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

Herri Biltzarrak:

ERABAKI DU - 2023ko irailaren 5etik goiti, lurralde animazio laguntzaile lanpostu iraunkor eta denbora partzialeko baten sortzea, batez beste astean 7,28 orenekoa,

- enplegu horrek 387ko indize gordinari dagokion saria izanen duela.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari eranskinean den lan kontratua izenpetzeko,

ONARTU DU Auzapezaren proposamen guztiak,

ZEHAZTU DU kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 11

Balitzko boz kopurua : 11

ALDE : 11

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko irailaren 5ean

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/09/08an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/09/08an.